

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 497/2017 Erabakia, irailaren 5koa, Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2017-2020 Foru Plana onartzen duena

Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2017-2020 Foru Planak Arabako Aldundiak adikzioen prebentzio arloan dauzkan politika publikoak garatzeko esparru programatikoa eskaintzen du.

Foru plan horren abiapuntua da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak adikzioen prebentzioan 1989tik egin duen lana, eta taxutzen da kontuan izanda zein diren Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta demografia ezaugarriak, kontsumoen oraingo errealitatea eta arrisku eta babes faktoreak. Gainera, garrantzi berezia ematen zaie hainbat eremutan egiten diren esku hartzei; hain zuzen ere, familian, eskolan eta gazteentzako jolas eta aisialdi guneetan egiten direnei.

Adikzioak hainbat eragile eta arrazoi ditu oinarrian; hortaz, ez zaio lerratzen talde edo gizarte, ekonomia eta kultura maila jakin bati, drogen kontsumoak edo substantzia gabeko adikzioak gizarte guztiari eragiten baitio.

Arrisku horiei aurre egiteko, foru planaren bidez lortu nahi dena da komunitatea gaitu eta indartzea, eta horrela ahalbidetu, gizarte eragileek erkidegoa mugiarazi dezatela beren baliabideak bilatzeko, modu horretan gizarte aldaketan protagonista bihurtuko direlarik.

Eredu horren inplementazioa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko prebentzio komunitarioko teknikari ekipoen bidez egiten da, Arabako landa zonan.

Amurrio, Laudio eta Gasteizen kasuan, udal bakoitzak planifikatzen ditu adikzioen prebentzio komunitarioko beren kudeaketa eremuan garatu beharreko ekintzak.

Trebiñuko Konderriko udalerriei dagokienez, zein lankidetzaren modu sustatu daitezkeen aztertuko da, eremu horretan zer jardun egiten ari den.

Azken finean, asmoa da komunitateak berak daukan ahalmena garatzea, denen ahalegina-rekin plan honek egingo dituen esku hartzeen eraginkortasuna biderkatu ahal izateko. Izan ere, prebentzioan, "batzea biderkatzea da".

Adikzioen arloan prebentzio komunitarioko foru politika arautzen duen arau esparrua hauexek osatzen dute: abenduaren 5eko 12/2008 Legea, gizarte zerbitzuena, zeinak bere printzipio orokorren artean ezartzen baititu erantzukizun publikoa eta elkarren arteko koordinazioa eta lankidetzaren; apirilaren 7ko 1/2016 Legea, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralarena, zeinak adierazten baitu foru aldundien eskumena dela, bakoitzak bere lurralde historikoan adikzioei buruzko foru plana taxutu, garatu eta gauzatzea, eta abenduaren 12ko 13/2008 Legea, familiei laguntzekoa, zeinak xedatzen baitu foru aldundien eskumena dela hartu beharreko neurriak hartzea, familiei laguntzeko, gizarteratzearen eremuan.

Lege horiekin bat etorritik, bi plan hauek hartu dira kontuan: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2011-2015 Adikzio Plana.

Arabako Foru Aldundiaren eremuan, hauexek dira erreferentziak: Legegintzaldiko 2015-2019 Plan Estrategikoa; hain zuzen ere, 3. ardatza (Lidergoaren gizarte zerbitzuen hornikuntzan), eta Arabako Lurralde Historikoko 2016ko gizarte zerbitzuen mapa.

Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2017-2020 Foru Plana lantzean, 2013-2016 Planaren ebaluazioa ere egin da. Ebaluazio horretatik abiatuz, errealitateari hobeto egokitzen zaizkion esku hartzeak egiten jarraitzea proposatu da, bazter utzi dira inguruan lortu nahi izan den eragina lortu ez duten esku hartzeak, eta komunitatearentzat berritzaileak diren beste batzuk erantsi dira.

Hauexek dira planaren xede nagusiak:

– Sustatzea gurasoek prestakuntza egokia izan dezatela beren gaitasunak eta balore positiboak garatzeko, beren osasunari dagokionez, horrek erraztu egingo duelako haien seme-alabak bizimodu osasuntsuetan hazi daitezen, adikzio jokabideak kudeatu behar direnean. Indartzea babes faktoreak adikzio jokabideen aurrean, bizimodu osasuntsuak sustatuz eskolan hezkuntza prozesuak dirauen bitartean, asmo batekin; hain zuzen ere, arrisku jokabideak mugatzea lehen eta bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta HLPPko ikasleen artean, eta

– Herritarrak sentsibilizarazi eta haiei informazioa ematea adikzioen arazoei buruz, eta parte hartu dezatela prebentzio ekintzak diseinatu eta planifikatzean.

Xede orokor horiek 9 xede operatibo eta 17 ekintzatan zehazten dira.

Halaber, hiru jardun eremu ezartzen ditu: prebentzio unibertsala familia eremuan, prebentzio unibertsala eskola eremuan, eta prebentzioa komunitate eremuan (prebentzio unibertsala, selektiboa eta adierazia).

Bukatzeko, foru plana ebaluatzeko eredua eransten da, non bi ebaluazio sistema nabarmendu daitezkeen: prozesuen ebaluazioa eta emaitzen ebaluazioa.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2017–2020 Foru Plana onartzea.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO

ADIKZIOEN PREBENTZIO KOMUNITARIOAKO FORU PLANA 2017 - 2020

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.araba.eus



PREBENTZIOAN, BATZEA BIDERKATZEA DA
EN PREVENCIÓN, SUMAR ES MULTIPLICAR

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA

2. ARAU ESPARRUA

3. KONTZEPTU EREMUA

4. PLANAREN EZARPENA

4.1.- Talde teknikoen kokapena

4.2.- Esku hartzearen filosofia

5. 2013-2016 PLANAREN EBALUAZIOA

6. 2017-2020 EPRERAKO JARDUERAK

6.1.- PREBENTZIO UNIBERTSALA FAMILIAN

6.2.- PREBENTZIO UNIBERTSALA ESKOLAN

6.2.1.- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

6.2.2.- Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta HLKP:

6.3.- PREBENTZIO UNIBERTSALA KOMUNITATEAN

Prebentzio unibertsala

Prebentzio selektiboa

Prebentzio adierazia

7. EBALUAZIOA

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

1. *Aurkezpena*





Planaren bidez komunitatea gaitu eta indartu nahi da, bere eraldaketarako autogestioa erraztuz, erabaki eta jarduteko gaitasunaren laguntzaz. Ildo horretatik, komunitate esku hartzeari aplikatutako Empowerment Eredua aipatu behar da. Haren bidez, gizarte eragileek komunitatea mobilizatzen dute bere baliabideen bila, gizarte aldaketen protagonista bihurtuz.

Komunitateak antolakuntza prozesuan parte hartzea, berez haren bizi kolektiboari eragiten dioten erabakiak hartzeko aukera bat izan ez ezik, pertsona guztiek euren historiaren subjektu, hots, talde bakoitzak bere komunitatearen bitzita hobetzeko nahi dituen berariazko prozesuen subjektu izateko daukaten eskubidea errealitate bihurtzea ahalbidetzen duen mekanismoa da.

Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen komunitate prebentzioko talde teknikoek bidez ezartzen da Arabako landa eremuan.

Finean, komunitateak daukan ahalmena garatzea da asmoa, denek ahaleginarekin plan honek egingo dituen esku hartzeen eraginkortasuna biderkatu ahal izateko. Izan ere, prebentzioan, **"BATZEA BIDERKATZEA DA"**.



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

2.

Araue eremua



Prebentzio komunitarioak **lege** hauek dauzka erreferentzia:

- **12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa:** Bere printzipio orokorretan erantzukizun publikoarena eta haien arteko koordinazio eta lankidetzarena, nahiz irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenarekiko koordinazio eta lankidetzaz ezartzen ditu, besteak beste.
- **1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa:** Prebentzioko neurriak, helburuak eta esku hartze eremuak jasotzen ditu. Foru aldundiek, euren lurralde historikoetan, Adikzioei buruzko Foru Plana egin, garatu eta gauzatzeko eskumena dutela adierazten du.
- **13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei Laguntzekoa:** Familiak erakunde gisa daukan garrantzia aipatzen du eta eginkizun garrantzitsua ematen dio pertsona gizarte eta komunitate bizitzan txertatzeko prestatzeko, jokabide ereduak, tradizioak, ohiturak, ekanduak eta sinesmenak helaraziz. Foru aldundiek gizarteratzearen arloan familiei laguntzeko behar diren neurriak hartzeko erantzukizuna dutela ezartzen du.

Lege horiekin bat etorritik, nabarmendu behar diren **erakundearteko plan** batzuk daude:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa-** Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 35. artikuluan jasotakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiekin eta udalekin koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak betetzeko behar diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduerak planifikatzeko, lege horretan jasotako finantza bideen eta tresnen esparruan. Bere ardatz eta helburu estrategikoen artean, komunitate ereduaren finkatzea eta garatzea jasotzen du planak, komunitate esku hartze eta prebentzio lanak indartuz, eta sareko lana eta hirugarren sektorearen parte hartzea ezartzen ditu elementu lehenetsi gisa.



- **Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko 2011-2015 Plana.-** Bizi balio eta balio osasungarri eta gizartearen aldekoen sustapena nabarmentzen du, pertsona eta talde ahulekin prebentzioko esku hartzeak garatzea berariaz sustatuz. Esku hartze lehenetsiko esparruak eta taldeak adierazten ditu: (familia, eskola, gizartea). Prebentzio unibertsalaren, selektiboaren, adieraziaren edo berariazkoaren bidez ezarri beharreko estrategiak definitzen ditu. Halaber, administrazio publikoaren eskumenen mugaketak eta konpromisoak zehazten ditu. Arabako Foru Aldundia ere haien artean dago.

Plan horrekin bat etorritik, **Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko 2017-2021 Plana** egiteko prozesuan dago; hor, jarduera ildoak 5 jarduera eremu handiren inguruan egituratu nahi da: adikzioen prebentzioa eta osasunaren promozioa, osasun laguntza eta gizarte eta osasun laguntza eta gizarteratzea, eskaintzaren murrizketa, ezagueraren, prestakuntzaren eta ebaluazioaren kudeaketa, eta lidergoa eta koordinazioa.

- **EAEko Familiei buruzko Erakundearteko II. Plana:** Familiak eremu guztietan eta, batez ere, sentsibilizazioan eta zenbait alderditan, hala nola osasun mentalaren promozioan eta drogen kontsumoaren prebentzioan, informatzen, daukan eginkizuna azpimarratzen du, baita gurasoen inplikazioa euren seme-alaben hezkuntzan ere. Arabako Foru Aldundiak, bere eskumenen eremuan, familiak sustatu, babestu eta arreta emateko jarduerak edukiko ditu bere lehentasunen artean.
- **Euskadiko III. Gazte Plana 2020.-** Gazteen alkohol kontsumoaren maila talde horren arazo nagusietako bat dela ikusarazten du. Horregatik, aisialdia eta alkohol kontsumoa binomioa hautsi beharra planteatu, eta alkohol kontsumoari buruzko prebentzio eta sentsibilizazio lana batez ere arriskurik handiena duten taldeei begira jartzen du, alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko. Ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak plan orokorraren esku hartze ildoak eta gidalerroak garatu eta bere konpromisoak era egokian doituko ditu.





- **Haur eta Nerabeei buruzko II. Plan Nazional Estrategikoa 2013-2016-PENIA II.-.**
Bere helburuen artean, besteak beste, arrisku, babesgabetasun, desgaitasun egoeran eta/edo gizarte bazterkeriako egoeran dauden haur eta gazteentzako arreta eta gizarte esku hartzea aipatzen du, gizarte gatazkako egoeren aurrean prebentzioko mekanismoak ezarriz. II. PENIAren helburu nagusia haurren eta nerabeen promozioan eta defentsan konpromisoa duten erakundeen arteko lankidetzakultura sortzea eta bien ongizateari buruz agertzen diren erronka berriei erantzutea da. Arabako Foru Aldundiak konpromisoa dauka prebentzioaren eremuan, beste jarduerak batzuen artean.

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

3.


Kontzeptu eremua



Adikzioek faktore anitz eta kausa anitz dauzkate. Ez dagozkie gizarte, ekonomia edo kultura talde edo maila jakin bati. Drogen kontsumoak edo substantziarik gabeko adikzioek gizarte osoari eragiten diote.

Funtsezkoa da arrisku nahiz babes faktoreak aztertu eta identifikatzea, politika publikoek bilatu behar dituzten helburu operatiboak erabakitzeko ez ezik, baita arrisku handiko egoeretan dauden eta berariazko esku hartzeak behar dituzten talde edo norbanakoekin esku hartzeko ere.

Prebentzioan «arrisku faktorea» eta «babes faktorea» kontzeptuak estuki lotuta daude.



Arrisku faktorea pertsonaren barruko eta/edo kanpoko ezaugarri bat da eta hura agertzeak gertakari jakin bat gertatzeko aukera edo joera areagotzen du (Clayton, 1992). Ezaugarri horiek pertsonalak, sozialak eta familiarak izan daitezke, eta jokabide adiktiboaren garapena iragartzea ahalbidetu eta pertsona portaera mota horretaranzko ahultasun egoera batean kokatuko lukete.

Babes faktoreak nahi ez den portaera bat gertatzeko probabilitatea murrizten duten banako ezaugarriak, egoera, giroa edo testuingurua lirateke. Drogen kontsumoari edo substantziarik gabeko adikzioei dagokienez, babes faktoreek erabilera desegokiaren probabilitatea murriztu, inhibititu edo arintzen dute.

Babes faktoreak egoteak arrisku faktoreen eragina modulatzeko du eta adingabeen eta nerabeen jokabideen gaineko eragina arintzen du. Ahulezia arrisku eta babes faktoreen arteko eragin trukearen emaitza da, eta substantzien kontsumo goiztiararen edo gehiegizko kontsumoaren probabilitatea kalkulatzeko neurririk egokiena dela esan daiteke.

Arrisku eta/edo babes faktore horien artean hauek nabarmentzen dira:


- **Harreman faktoreak:** Familiak, eskolak eta berdinen taldeak pertsona sozializatzen laguntzen dute. Ingurunerik gertuenekoan daude eta eragin handia daukate norbanakoarengan eta haren garapenean, eta baldintzatu egiten dute haien bizitza garatzen den eremua diren heinean.

✓ FAMILIA

Oinarrizko gizarte ingurunea da familia. Familiaren eragina funtsezkoa da, alde batetik, nortasuna eratzeko, haurrak munduari ñabardura jakin batekin jakin batekin (pozik, konfiantzaz, triste, mesfidati, defentsan...) aurre egiteko erabiliko duena, hain zuzen ere, eta, bestetik, haren irekitzeko jarreraren oinarria izango den segurtasun sentipena eratzten.

Haren jatorria babes afektiboan, hartua, maitatua, onartua sentitzeko mailan dago. Segurtasun eta babes klima funtsezkoa da nia integratzeko, nortasun integratu bat eratzeko, etab.

Hauk dira, familiari lotutako elementuen artean, arrisku eta babes faktore gisa identifikatu direnak:



✓ ESKOLA


Eskolak, erakunde gisa, eta sozializatzeko eginkizunen bidez, “ni”aren zentzua edo autoestimua eskuratu eta finkatzeko, eskola komunitateko kide aktibo gisa integratzeko eta zenbait bizikidetz mailatan gizarte harremanak edukitzeko aukerak ematen ditu.

Eskolaren bitartez gizarte ereduak eta balioak transmititzen dira, zeinek ikasleei taldean bizitzen eta geroago gizartean integratzen eta haren arauak, legeak eta balioak errespetatzen lagunduko dietenak. Mugitzen den gizartearen barruan kide heldu, aktibo eta arduratsu bihurtzen laguntzen du.

Familiarekin batera, garatzen eta lehen ikaskuntzak izaten lagunduko duten oinarriko esperientziak emateko eginkizun garrantzitsua eduki behar du eskolak .

Hauek dira, familiari lotutako elementuen artean, arrisku eta babes faktore gisa identifikatu direnak:

ARRISKU FAKTOREAK



✓ BERDINEN TALDEA EDO LAGUNAK

Lagun taldeak laguntza ematen die adingabeari eta nerabeari euren nortasuna definitzeko eta finkatzeko, arazoak, sentimenduak eta emozioak partekatuz, eta gizarte beharrianak, hala nola afektua, segurtasuna eta estimua, asetzen laguntzen du-

Baina eragin negatiboa ere izan dezake taldeak bere kideei presio handiegia egiten dienean eta norbanakoari bere arauak onarrarazten dizkionean, haren autonomia eta erabakimena indargabetuz.

Hauk dira, familiari lotutako elementuen artean, arrisku eta babes faktore gisa identifikatu direnak:

ARRISKU FAKTOREAK

Kideen arteko harreman txarrak
 Talde presio handia
 Aisialdia gaizki kudeatzea
 Substantziak eskura izatea
 Substantziak kontsumitzea
 Taldearen mendekotasun handiegia izatea
 Jokabide problematikoak

BABES FAKTOREAK

Kideak onartzea
 Banako erabakiak errespetatzea
 Aisialdia modu osasuntsuan kudeatzea
 Ohitura osasuntsuak izatea eta kirola egitea
 Kideek autonomia izatea


▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

4. -

Planaren ezarpena



4.1. Talde teknikoen kokapena



Prebentzio lana lurralde historiko osoan egiten da, komunitate prebentzioko 3 talde teknikoren bitartez, Arabako kuadrilla guztietan banatuta, guztira 52.345 biztanleri arreta emanez, Amurrio, Laudio eta Gasteizko udalerrietan izan ezik.

Amurrio, Laudio eta Gasteizen kasuan, udal bakoitzak planifikatzen ditu adikzioen komunitate prebentzioaren arloan nor bere kudeaketa eremuan gauzatu behar dituen ekintzak.

Trebiñuko Konderriko udalerriei dagokienez, aztertuko da zeintzuk diren sustatu daitezkeen lankidetzeta moduak, arlo horretan gauzatzen diren ekintzak hartuta oinarritzat.

4.2. Esku hartzearen filosofia

Prebentzio ekintzen plangintza egiteko lehenik alde bakoitzeko errealitate zehatza aztertzen da eta komunitatea hartzen da prebentzioko esku hartze programak gauzatzeko talde jasotzailek egokien gisa.

Ikuspuntu horretatik, gizarte arazoei pertsonaren ikuspegitik heltzen zaie, pertsona izaki bateratu gisa ulertuta, bizi komunitateko sistema global batean integratu nahian, banako eta gizarte ongizatea bilatzen duten sektoreen arteko benetako koordinazioaren bidez, horretarako komunitate eta giza baliabideak, nahiz baliabide material eta ekonomikoak modu arrazionalizatuan eta planifikatuan erabiliz, proposatutako helburuak lortzea ahalbidetzeko.

Ulertuta, bestalde, pertsonen hezkuntza prozesuan, haiek ekintzen agente jasotzaile gisa ikusi ez ezik, eurek euren gaitasunak eta trebetasunak egituratu eta garatuko dituzten prozesuak erraztu behar direla.

Hala, zerbitzu tekniko horietatik zabaltzen den filosofia erreferentziazko puntu hauetan laburbiltzen da:

- Komunitateko esku hartzearen lehen erronka komunitatea eraikitzea da; horretarako, lehenago lurralde bakoitzak komunitatea zer den aztertu eta definitzeko lan bat behar da. Parte hartze kolektiboaren bitartez proiektu komuna eraiki behar da.
- Lan komunitarioa gizarte, ekonomia, hezkuntza... arlokoa da. Komunitatera zabalik egon behar dute erakundeek. Arazo iturri ez ezik, irtenbideen iturri eta jatorri ere bada komunitatea. Arazoak kolektiboak badira, haien irtenbideak ere kolektiboak izan beharko du. Beraz, beharrezkoa da parte hartze komunitarioako organoak ezartzea.



- Esku hartze komunitarioako behar diren tresnak, batez ere, adierazteko, parte hartzeko eta desberdintasuna eta banakotasuna errespetatzeko eszenak sortzean datza. Deialdi moduak, parte hartzeko dinamikak, gatazka eta berradiskidetze guneak, atsegina... dira parte hartzearen gakoak.



- Lan komunitariorako gatazka ekintzaren beste motor bat bezala integratu behar da. Gatazka gizarte bizitzari datzekio. Gatazkak ekidin nahi izatea krisian sartzea da eta, krisi hori, konpontzen ez bada, liskarrera darama.
- “Ez-eskatzea” eskatzeko modu esplizitu gisa lantzen da. Talde dinamikan, egoteak beste balio du ez egoteak.
- Jakintza komunitarioa zenbait jakintzatan oinarritzen da: “Jakintza teknikoa”, “jakintza kulturalak”, “lurralde bateko biztanleen jakintzak”, tokiko mikro-kultura daramatenak, eta “jakintza enpirikoak”.
- Gizarte eta komunitateko esku hartze lan baten oinarria benetako beharrezana hautemandako beharizan eraldatzailea da, pertsonaren ahalmenearekin kontaktatuz eta ez haren disfuntzioarekin, juzguak eta aurreiritziak saihestuz.
- Hona lan horretarako ezinbesteko baldintzak: malgutasuna, eskuragarritasuna, gardentasuna, moldakortasuna eta zeharkakotasuna. Lan ordutegiak tokiko beharrezanen eta esku hartzen den tokiko gizarte dinamiken funtzionamenduaren arabera ezarri behar dira.

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

5. -
2013-2016
planaren ebaluazioa



Ebaluazio hitzak iritzi bat emateko, balorazio bat egiteko, "zerbait" (objektua, egoera, prozesua) iritzi hori emateko zenbait balio irizpideren arabera neurtzeko balio duten jardueren multzoa izendatzen du. Ildo horretatik, ebaluazio sistematikoko moduak erabili behar dira, prozedura zientifiko bat erabiliz, baliozkotasuna eta fidagarritasuna bermatzen dituztenak.



2013-2016 planean sartutako ekintzak ebaluatzeko egin den analisian, prozesu operatiboetara heldu zaie, era efikaz eta eraginkorrean egiten diren eta kudeaketa hobetzen laguntzen duten balioetsiz. Ildo horretatik, prozesuen ebaluazioen bitartez, arau eremuaren, egituraren eta esku hartzeen funtzionamenduaren indarrak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak hautematen dira, eta elementuak jartzen dira eraginkortasun operatibo handitzeko eta jardueren diseinua aberasteko estrategiak ezartzeko.

Ebaluazioa egiteko ezarritako hiru esku hartze motei jarraitu zaie:

- ◆ **UNIBERTSALA:** biztanleriari oro har edo arrisku faktorerik ez daukaten pertsonen talde zabalei bideratutako ekintzak.
- ◆ **SELEKTIBOA:** biztanleria talde zehatzei zuzendutako ekintzak, datu objektiboaren arabera adikzioen inguruko arazoak sortzeko gai diren arrisku faktoreak dauzkatenak.
- ◆ **ADIERAZIA:** arrisku handiko pertsonetara zuzendutako ekintzak, substantzien kontsumoak eta bestelako portaera arazoak dituztenak.

Hemen zehazten dira 2013 - 2016 planean jasotako datuak:

5.1. Familia eremua

Ekintzak	URTEA				GUZTIRA
	2013	2014	2015	2016	
Gurasoen Eskola	13 herri 89 saio 354 parte hartzaile	10 herri 106 saio 263 parte hartzaile	11 herri 79 saio 258 parte hartzaile	13 herri 97 saio 327 parte hartzaile	47 herri 371 saio 1.202 parte hartzaile
Gurasoentzako topaketak	12 herri 33 saio 235 parte hartzaile	9 herri 32 saio 208 parte hartzaile	15 herri 29 saio 313 parte hartzaile	12 herri 25 saio 241 parte hartzaile	48 herri 119 saio 997 parte hartzaile
Familien prestakuntzarako lurralde topaketak	Deialdi 2: -- 800 perts. (Gasteiz) 378 p. (Oion)	Deialdi 2: -- 800 perts. (Gasteiz) 155 p. (Ondategi)	Deialdi 2: -- 250 perts. (Gasteiz) 116 p. (Kanpezu)	Deialdi 2: -- 450 perts. (Gasteiz) 105 p. (Amurrio)	Deialdi 8: -- 2.300 pertsona Gasteiz + 754 pertsona gainerako Araba
Gurasoentzako irratia eskola	40 programa emanda	36 programa emanda	32 programa emanda	37 programa emanda	145 programa emanda (Radio Rioja Alavesa - EITB taldea 105,8 FM eta 102,8 FM)
Familientzako informazio aldizkariak	--	--	6.000 ale banatuta	6.000 ale banatuta	12.000 ale banatuta
Familien ahaluntze programa "PrebenFamilia - Araba" (www.irefrea.org/araba)	--	--	Jardunaldi 2: Prestakuntza 17 zerbitzu teknikori 14 IGEren, IGE- en 2 federazioen eta 4 erakunde publikoren ordezkariak	3 jardunaldi: 19 IGEren ordezkariak, IGE- etako 40 kide, 2 federazioen eta 4 erakunde publikoren ordezkariak	5 prestakuntza jardunaldi -- Parte hartu dute 17 profesionalek, 4 erakunde publikok, IGE-en 2 federaziok eta IGE-en 23 ordezkarik


Gurasoen prestakuntzako presentziako programa eta ekintzei dagokienez (eskolak, topaketak eta landa eremuko lurralde topaketa) 2013-2016 epean hau izan da parte hartzaileen bolumena:

- **99 herri** (+ 4 jardunaldi hiriburuan)
- **499 prestakuntza saio** (+ 4 saio Gasteizen)
- **2.953 parte hartzaile** (+ 2.300 parte hartzaile Gasteizko 4 jardunaldietan)

Zehazki **gurasoentzako prestakuntzan** (eskolak eta topaketak) **bilakaera** hau egonda aztertutako epean:

ESKU HARTZE ERREGISTROEN ETA PARTE HARTZE ERREGISTROEN BILAKAERA

2013-2016 aldia URTEA	A: Gurasoen ESKOLAK		B: Gurasoen TOPAKETAK		GUZTIRA (A+B)	
	saioak	parte hartzaileak	saioak	parte hartzaileak	saioak	parte hartzaileak
2013	89	354	33	235	122	589
2014	106	263	32	208	138	471
2015	79	258	29	313	108	571
2016	97	327	25	241	122	568
GUZTIRA	371	1.202	119	997	490	2.199



5.2. Eskola eremua

Ekintzak		URTEA				GUZTIRA
		2013	2014	2015	2016	
EDUCACIÓN INFANTIL y EDUCACIÓN PRIMARIA HAUR HEZKUNTZA eta LEHENENGO HEZKUNTZA						
Tabako/alkoholaren prebentzioa	Ikastetxeak	4	4	4	5	17 ikastetxe
	Parte hartzaileak	81	135	193	106	515 p. - h.
Hezkuntza afektibo eta emozionala	Ikastetxeak	4	10	11	19	44 ikastetxe
	Parte hartzaileak	184	422	454	728	1.788 p. - h.
Sare sozialak, Internet eta ziberjazarpena	Ikastetxeak	2	7	7	11	27 ikastetxe
	Parte hartzaileak	72	229	393	599	1.293 p. - h..
Gizarte trebetasun., gatatzk. konpontz., adimen emozion. eta balioet. Hezkun.	Ikastetxeak	8	7	9	11	35 ikastetxe
	Parte hartzaileak	279	510	612	612	2.013 p. - h.
Elikadura eta ohitura osasungarriak.	Ikastetxeak	2	6	3	4	15 ikastetxe
	Parte hartzaileak	28	66	73	111	278 p. - h..

138 esku hartze egin dira 5.887 jasotzaileekin.



Ekintzak	URTEA				GUZTIRA	
	2013	2014	2015	2016		
EDUCACIÓN SECUNDARIA y BACHILLER BIGARREN HEZKUNTZA eta BATXILLERGOA						
Tabako/alkoholaren eta kalamuaren prebentzioa	Ikastetxeak	8	7	8	7	30 ikastetxe
	Parte hartzaileak	881	571	783	455	2.690 p. - h.
Plazeren eta arriskuen kudeaketa	Ikastetxeak	3	1	2	2	7 ikastetxe
	Parte hartzaileak	119	23	82	132	356 p. - h.
Hezkuntza afektibo eta emozionala	Ikastetxeak	10	8	8	10	36 ikastetxe
	Parte hartzaileak	922	822	1.003	995	3.742 p. - h.
Oldarkortasuna, gatazkak konpontzea eta jazarpenaren prebentzioa	Ikastetxeak	3	5	4	3	15 ikastetxe
	Parte hartzaileak	169	210	394	464	1.237 p. - h.
Drogamendekotasunen prebentzioa arte eszenikoak	Ikastetxeak	-	-	2	1	3 ikastetxe
	Parte hartzaileak	-	-	222	198	420 p. - h.
Bizi estilo osasungarriak lehiaketa	Ikastetxeak	1	2	2	2	7 ikastetxe
	Parte hartzaileak	118	138	270	345	871 p. - h.
Elikatzeko desordenen prebentzioa	Ikastetxeak	1	3	3	3	10 ikastetxe
	Parte hartzaileak	76	85	195	145	501 p. - h.
Autoestimua eta emozioak	Ikastetxeak	4	5	4	6	19 ikastetxe
	Parte hartzaileak	212	451	137	389	1.065 p. - h.
Sare sozialak, Internet eta ziberjazarpena	Ikastetxeak	8	5	5	7	25 ikastetxe
	Parte hartzaileak	522	299	664	427	1.912 p. - h.
Antsietatearen prebentzioa eta kontrola	Ikastetxeak	3	2	4	3	12 ikastetxe
	Parte hartzaileak	101	71	53	116	341 p. - h.
Kerik Gabeko Gelak	Ikastetxeak	8	5	7	5	25 ikastetxe
	Parte hartzaileak	513	297	313	293	1.416 p. - h.
Gizarte trebetasunak	Ikastetxeak	7	3	-	-	10 ikastetxe
	Parte hartzaileak	626	367	-	-	993 p. - h.
"Boys & Girls Plus" proiektuak	Ikastetxeak	-	-	2	-	2 ikastetxe
	Parte hartzaileak	-	-	369	-	369 p. - h.
Adikzioen prebentzioa "Unplugged"	Ikastetxeak	-	-	2	-	2 ikastetxe
	Parte hartzaileak	-	-	369	-	369 p. - h.
Ikasketa, jolasa eta adikzioak	Ikastetxeak	-	-	3	5	8 ikastetxe
	Parte hartzaileak	-	-	352	258	610 p. - h.

211 esku hartze egin dira 16.892 jasotzaileekin.

5.3. Komunitate eremua

Ekintzak	URTEA				GUZTIRA
	2013	2014	2015	2016	
Gazteen bitartekari prestakuntza ikastaroak	Ikastaro 2 38 begirale	Ikastaro 1 10 begirale	Ikastaro 2 35 begirale	Ikastaro 2 18 begirale	Ikastaro 6 101 begirale
Alkoholik gabeko koktellen tailerrak	10 tailer 309 parte hartzaile	6 tailer 112 parte hartzaile	6 tailer 107 parte hartzaile	10 tailer 170 parte hartzaile	32 tailer 698 parte hartzaile
Bestelako aisia sustatzeko tailerrak	7 herri 189 parte hartzaile	5 herri 119 parte hartzaile	4 herri 280 parte hartzaile	4 herri 246 parte hartzaile	20 toki 834 parte hartzaile
Drogak prebenitzeko irriti solasaldiak	10 saio	13 saio	13 saio	13 programa	49 irriti saio
“PrebenJaia” jaietan alkoholaren arriskuak murrizteko programa	18 esku hartze (17 gau + egun 1) 4.995 lagun	20 esku hartze (18 gau + egun 2) 5.652 lagun	18 esku hartze (17 gau + egun 1) 4.476 lagun	19 esku hartze (18 gau + egun 1) 4.006 lagun	75 esku hartze (gauko 70 + eguneko 5) 19.129 lagun
Gazte lonja eta lokaletan esku hartzeko programak	Lonja 1 27 gazte	----	Lonja 1 18 gazte	Lonja 2 75 gazte	4 lonja 120 gazte
“Info-Drogak” gunek	2 esku hartze 306 lagun	3 esku hartze 360 lagun	4 esku hartze 621 lagun	3 esku hartze 355 lagun	12 esku hartze 1.642 lagun
Testing -Drogak	2 esku hartze 33 droga lagin 245 lagun	2 esku hartze 34 droga lagin 292 lagun	2 esku hartze 35 droga lagin 321 lagun	2 esku hartze 38 droga lagin 301 lagun	8 esku hartze 140 droga analisi 1.159 lagun

Aztertutako aldian **23.683 lagunekin** esku hartu da zuzenean.

Komunitate eremuko ekintzarik adierazgarrienetako batean, hots, “**PrebenJaia**” karpak izenekoan, bilakaera hau erregistratu da:

PREBENJAIJA --- 2013 – 2016 BILAKAERA HISTORIKOA										
URTE A	Esku hartze kop.	TEST Kop.	Test Negatiboak ⚡		Test Positiboak ⚡		Gidariak (guztirakoaren arabera ehuneko)			
			Negatib. guztira	Negat. %	Positiboak guztira	Posit. %	Gidari. guztira	Gidar. tasa negatib. %	Gidar. Tasa positib. %	Gidari. % Tasa posit.
2013	18	4.995	2.468	% 49'41	2.527	% 50'59	1.801	% 62'63	% 37'37	% 13'67
2014	20	5.652	2.582	% 45'68	3.070	% 54'32	1.552	% 53'80	% 46'20	% 12'69
2015	18	4.476	2.313	% 51'68	2.163	% 48'32	1.506	% 66'80	% 33'20	% 11'17
2016	19	4.006	2.115	% 57'80	1.891	% 47'20	1.325	% 65'28	% 34'72	% 11'48
GUZTIRA	19.129	9.478 lagun.	9.478 lagun.	% 49'55	9.651 lagun.	% 50'45	6.184	% 62'13	% 36'87	% 12'25

2013-2016 Foru Planaren bilakaeratik zenbait ezauguera eskuratu dira. Ikaskuntza berri horien inguruan, errealitatera hoberen egokitzen diren esku hartzeak mantentzea proposatu da,

ingurunean nahi zen eragina izan ez dutenak baztertu dira eta komunitatearentzat berritzaile diren beste batzuk gehitu dira.

Ildo horretatik, esparru bat erabili da plana gauzatu den urteetan ezarritako metodologia aztertzeko, eta komunikazioaren arloko Jardunbide egokien eskuliburu bat gehitzea adostu da. Haren bidez, posible izango da hura ingurunean garatzea eta proposatutako helburuak lortzen aurrera egitea.

Jardunbide egoki horren oinarria Foru Plana ikustarazteko kalitatezko komunikazioa lortzea da. Hala, ezinbestekotzat jotzen da noranzko biko komunikazio jardunbideak egotea, hots, barne nahiz kanpoko mailan berrelikadura edo feedbacka kontuan hartuko dutenak. Barne maila aipatzean, taldekideek informazioa, esperientziak eta iritziak partekatu beharra azpimarratzen da, ikaskuntza etengabea eta, azkenean, kalitatezko kudeaketa sustatzeko. Bestalde, kanpoko mailarekin taldearen eta ingurunearen artean egon behar den noranzko biko komunikazioa aipatzen da. Ingurunea planean jasotako ekintzetan parte har dezaketen pertsona eta talde guztiak dira. Hala, herritarrak hartzen dira aintzat euren garapen pertsonalaren protagonista gisa.

Jardunbide egoki horien xedea ingurunearekiko zuzeneko komunikazioa erraztea eta ekintzek komunitatean daukaten eragina hobetzea izango da.

Ildo horretatik, funtsezkoak dira koadro honen arabera sailkatutako interes taldeekiko komunikazioa eta lankidetzak:



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

6. -
2017-2020
Ekintzak



5.1. - *Prebentzio Unibertsala familian*

Familia gizartearen oinarriko eta funtsezko erakundetzat jotzen da, bere kideen beharriaz erantzutera eta haiek asetzera bideratuta eta antolatuta, kideak gizarte munduari lotuz, sozializazio prozesuaren bidez kultura barneratzea, birsortzea eta betiketzea ahalbidetuta.

Mantentzeko eta sozializatzeko eginkizuna betetzen du familiak eta, aldi berean, gizarte kontrolari eusten laguntzen du, eta ez bakarrik diharduen lehenengoa izateagatik, baizik eta, funtsean, bere eraginaren izaera kualitatiboagatik.

Helburu orokorra: Gurasoek euren gaitasun pertsonalak eta euren osasunari buruzko balio positiboak garatzeko prestakuntza egokia jasotzea sustatzea, euren seme-alabak jokabide aditiboaren kudeaketaren aurrean bizi estilo osasungarrien barruan hezteko errazteko.

Helburu operatiboak:	Ekintzak
Familien gaitasuna hobetzea, eta gurasoei beren seme-alaben hezkuntza prozesuei buruzko eta adikzioen prebentzioari buruzko jakintza eta gaitasunak ematea.	Hezkuntza prozesuei lotutako alderdiei buruzko prestakuntza tailerrak gurasoentzat
Elkarrekin topo egiteko, komunikatzeko eta gogoeta egiteko espazioak sustatzea, balioen hezkuntzari buruz, droga kontsumoaren prebentzioari buruz eta ikuspegi egokiak mesedetzen dituztenak.	Gasteizko eta Arabako landa eremuko prestakuntza programetako parte hartzaileen topaketa jardunaldiak Familien prestakuntza osatzeko eta tresna erabilgarriak eskuratzeko informazio aldizkariak.
Jarrera eta portaera aktiboagoak sustatzea, drogamendetasunekin eta bestelako arrisku egoeren prebentzioarekin konprometituagoak.	Familia ahalduzko eta adingabeei eta nerabeei eragiten dieten arriskuak prebenitzeko programak
Metodologia	
Erakartzea, taldeari informatzea, sustatzea eta gauzatzea.	Metodologia ireki eta sortzailea, talde jasotzailearen ezaugarriekin egokitua
Taldeko teknikak eta dinamikak erabiltzea	Ekintza bakoitzaren prozesuen eta emaitzen ebaluazio etengabea eta amaierako memoria egitea.

Jarduerak

• Gurasoen Eskola



Adingabeak dauzkaten familiei laguntzeko baliabide bat da, hezkuntza eta sozializazio eginkizunak era egokian garatu eta beharizan eta gizarte arriskuko egoerak gainditu ahal izateko. Astero edo hileroko egiten da.

Izan daitezke: aurrez urrekoa eta irrati bidezkoa. Azken hori Radio Rioja Alavesa 105,8 FMtik ematen da. Gurasoen aurrez aurreko eskolako esperientzia gizarte komunikazioko hedabide batera eramatea ahalbidetzen du, pertsona gehiagorengana hurbiltzeko.



• Gurasoen arteko topaketak



Prestakuntza ekintza monografikoak, 3-4 saiokoak. Haietan, Gurasoen eskoletan bezala, familia barruko dinamikari eta familia gune bakoitzaren barruan ingurunearekin nahiz kideen artean ezartzen diren harremanei lotutako alderdiak jorratzen dira.

• “Gasteizko eta Arabako Guraso Eskolen” mahai ingurua

Jarduera hori Gasteizko eta Arabako ikastetxeetan egiten diren gurasoen prestakuntza programa guztietan egiten den ekintza bat da. Arabako Lurralde Historiko osoko prestakuntza eskolen eta haietako kideen arteko bizikidetzeta eta elkar ezagutza esparru bat erraztu nahi du.



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
 Instituto Foral De Bienestar Social
 ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA



Gasteizen kokatutako ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarten bidez antolatzen eta kudeatzen da, gurasoentzako prestakuntza programetara doazen pertsonak osatutako batzorde baten bidez.

- Arabako Lurralde Historikoko gurasoentzako prestakuntza programen urteko topaketa

Familientzako programazioa ixteko ekitaldia. Bertan, guztien intereseko gai bat landu eta Arabako lurraldeko esperientziak eta pertsonak trukatzeko ahalbidetzen da.



Garraio zerbitzua dauka, dohainekoa, eta adingabekoak zaintzeko zerbitzua ere bai.

- Gurasoentzako informazio aldizkaria



Urtero egiten den argitalpena. Haren barruan familia dinamikaren barruko hezkuntza alderdiei buruzko intereseko gai batzuk jorratzen dira monografikoki. Paperean eta GOFeren, toki erakundeen, ikastetxeen eta abarren web orrietan zabaltzen da.

• **Familia ahaldunderako eta adingabeei eragiten dieten arriskuak prebenitzeko**
“FERYA” Europako programa – “PrebenFamilia – Araba”



Haren bidez guraso taldeak antolatzen dira euren elkarten lidergo proaktiborantz, familia erakundeen, adituen, prebentzioko profesionalen eta administrazio teknikarien arteko baterako lan plan bat eta sareko plan bat eginez. Horren emaitza adikzioak prebenitzea eta arriskuak murriztea izango da.


Proiektuan Arabako Foru Lurralde Historikoko erakunde hauek daude: Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Laudio eta Amurrikoa, ikastetxe publikoetako (Denon Eskola) eta itunpeko ikastetxeetako (FAPACNE) gurasoen elkarten federazioak eta Prebentzio Ikerketarako Europar Institutua (IREFREA).

Familiak euren seme-alaben prebentzioko hezkuntzan duten eginkizun erabakigarriari buruzko zenbait hausnarketen ondorioz, 2015ean **Prebenfamilia Araba: Sare positiboak** sortu zen. (www.irefrea.org/araba)

Funtsezko helburua esfortzuak batzea eta komunitate sare bat sortzea da, ezagutza, jardunbide egokiak eta batez ere zeregin komun bat sortzeko: hartzen dituen komunitatearen beharrian eta eskaerekin bat datozen babes faktoreak garatzea.



Haren funtsezko ideologia esparru bat ezartzea, haren barruan familiak prebentzio eragileak bihurtzeko, euren eginkizuna, komunitatean eta erakundeetan daukaten eragina aitortuz eta bizi diren udalerritik harago doazen loturak ezarri.



6.2. - *Prebentzio Unibertsala eskolan*

Elkarrizketaren bidez, eskolak edukiak transmititzea sustatzen du, arazoak konpontzeko estrategiak ikastearekin batera, iritzi kritikoa eta sormena, eskubideen eta betebeharren onarpena eta aukeren eta mugen onarpena berretsiz, autonomia arduratsuaren erabileraren eraketa finkatuz.

Helburu nagusia: Jokabide mendekotasun-sortzaileen aurreko babes faktoreak indartzea, eskolako hezkuntza prozesuan bizi estilo osasungarriak sustatuz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta HLKPko ikasleen artean arrisku portaerak mugatu asmoz.	
Helburu operatiboak:	Ekintzak
Gaitasun pertsonalei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea, adikzioak sor ditzaketen substantziei "ezet" esaten laguntzeko, eta arazoak eta gatazka egoera pertsonalak modu positibo batean bideratzen jakiteko beste tresna batzuk eskaintzea.	Gizarte trebetasunei, gatazkak konpontzeari eta autoestimuari buruzko prestakuntza tailerrak.
	Tabakoari, alkoholari eta kalamuari buruzko prestakuntza tailerrak
	Adikzioak prebenitzeko eta teknologia berriak erabiltzeko tailerrak
Ikastetxearen, familiaren eta beste komunitate zerbitzu batzuen arteko harremana sustatzea, ekintzen eraginkortasuna bermatzeko.	Bilerak ikastetxeetako zuzendaritza taldearekin programak hautatzeko
	Bilerak eta koordinazioa orientazio pedagogikoko zerbitzuarekin programak ezartzeko
	Koordinazioa IGE-ekin
Kontsumoaren hasiera datari, tipologiari, maiztasunari eta aldatzeko motibazioari buruzko informazio eguneratua eskuratzea.	Datu bilketa eta ikasleen arteko adikzioen azterlanak
Metodologia	
Egoera gatazkatsuak hautematea, elkarrizketa edo galdetegia ikasleei eta irakasleei.	Harremana ikastetxetik kanpoko profesionalekin prestakuntza saioak prestatzeko
Zuzendarien, irakasleen eta gurasoen sentsibilizazioa	Ekintzak gauzatzea
Dauden materialak ebaluatzea edo berriak bilatzea beharrianetara egokitzea	Esku hartzearen ebaluazioa: ikasleei, irakasleei, familiari eta komunitateari haren berri ematea eta amaierako memoria egitea.

Jarduerak

• LEHEN HEZKUNTZAKO TAILERRAK

Esku hartzeak, batez ere, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan egin dira eta arriskuko jokabideak edo substantzien kontsumo esperimentalen hastapena hautematea bilatzen dut.



Landutako alderdiak ikastetxe bakoitzeko hezkuntza planetan ezarritako zeharkako ardatzen barruan kokatzen dira, eta ikasleen gaitasun pertsonalen eta bilakatzeko eta heltzeko prozesuen garapena indartzen laguntzen dute.

• BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGO eta HLKPk TAILERRAK

Atal honetan lantzen diren irizpideak nerabeek zenbait eremutan dauzkaten bilakaera prozesuari eta garapenari dagozkie. Azken helburua talde horri substantzia mendekotasun sortzaileraren balizko kontsumoak erantzukizunez kudeatu eta aurre egin ahal izateko behar diren gaitasun pertsonalak eta gizarte trebetasunak ematea da.

1. Gazte Eskola-I: adikzioen prebentzioa

12 urtetik gorako nerabe eta gazteentzat.

Programak egitearekin batera ikasleen kontsumi eta pertzepzioei buruzko inkesta bat egiten da, ekintzak geletan hautemandako beharizanetara egokitzeko.



Tailerrak egiteko metodologia praktikoa erabiltzen da, ikasleak hausnartzera gonbidatzen dituena, eta osatzeko berariazko saioak egiten dira gurasoentzat.

2.- Gazte Eskola-II: afektu eta harreman pertsonalen kudeaketa.

Berriazko prestakuntza bat, besteak beste gai hauek lantzeko: berdinen arteko harremana, sentimenduen maneia, sexu rola, erantzukizunak hartzea, begirunea, bizikidetzeta eta elkarrekikotasuna, genero indarkeria, sexuen arteko aldeak eta antzekotasunak eta hizkuntzaren erabilera sexista. Horrela, gazteek beren burua ezagutzea eta onartzea eta pertsonarteko harremanetan behar bezala hitz egitea nahi da.

3.- Gazte-Eskola-III: gatazkak konpontzea, emozioak, gizarte trebetasunak eta autoestimua.



3 prestakuntza saio egiten dira ikasgela bakoitzeko. Saio bakoitzak ordu eta erdi irauten du, eta haietan talde dinamikak egiten dira, eguneroko egoerak erreproduzitzeko eta egoera horietarako erantzunak bilatzeko.

Lantzen diren gaiak hauek dira: komunikazioa (ahozkoa eta ez ahozkoa), enpatia, erabakiak hartzea, gatazken konponketa, emozioen kudeaketa, autoestimua eta norbere burua ezagutzea, asertibotasuna, negoziazioa, talde lana, tentsioak eta estresa kudeatzea, eta edukazio eta bizikidetzeta arauak ezartzea gizarteratze eremu guztietan (familiar, hezkuntzaren eremuan eta komunitatean).

4.- Gazte-Eskola-IV: Sare sozialak, Internet eta ziberjazarpena

Tailerrak "ASAJER" Errehabilitazioan dauden Jokalarien Arabako Elkartearekin batera eman eta egiten dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak entitate horrekin daukan lankidetzeta hitzarmenaren esparruan.



5. Gehiegizko droga kontsumoa prebenitzeko “Unplugged – Deskonektatuta” programa

Edex Fundazioak bultzatutako europar proiektua da.

12-14 nerabeentzat dago pentsatuta, eta haren helburua bizitzarako ezaguerak, jarrerak, balioak eta trebetasunak erraztea da, drogen kontsumoranzko gizarte eraginei aurre egin eta substantzia horien eskaintzaren aurrean era arrazoitu eta autonomoan erabaki ahal izateko.



Ordubeteko 12 saio dira. Haietan, eduki nagusien bidez enpatia, asertibotasuna, gizarte harremanak, zailtasunak gainditzea, arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea, helburuak finkatzea, arauen pertzepzioa, alkoholari eta tabakoari buruzko informazioa, etab. lantzen dira.

Irakasleek aplikatzea errazteko diseinatuta dago, eskuliburua dauka harentzat, lan koaderno bat ikasleentzat eta fitxa pakete bat.

6. “Bizimodu osasungarri” buruzko lehiaketa



Tutoretzen bidez zeharka landutako edukiei buruzko jarduera osagarri eta indargarria. Nerabeak bizitzen dituzten errealitateetatik bizi izandako ohitura osasungarri buruz hausnartzen, aztertzen eta indartzen laguntzen duen mekanismo bat ematen du.

Lehiaketa ireki baten bidez gauzatzen da, substantzi mendekotasun sortzaileen kontsumoei eta berdinen arteko harremanei buruzko lan bat, norberaren hausnarketa, analisi kritikoa eta informazio bilaketa erakusten duten lanak bultzatzeko eta saritzeko.

7. “Kerik Gabeko Gazteak” programa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak sustatzen du, eta Osakidetzako Araba eskualdeak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Gasteiz, Laudio eta Amurrioko Udalek parte hartzen dute, Eusko Jaurlaritzako eta Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailekin batera.



DBHko 1. zikloko ikasleentzat dago pentsatuta eta ikus-entzunezkoak sortzeko lehiaketa batean eta maiatzaren 31ren inguruan (Tabakorik gabeko Munduko Eguna) sariak ematean datza.



6.3. - *Prebentzio unibertsala komunitatean: prebentzio unibertsala, selektiboa eta adierazia.*

Komunitatearen sentsibilizazioa eta komunitate eremuko esku hartzea familiaren eta eskolaren eremuen prebentzio jardunen osagarri dira, eta banakoen, taldeen eta erakundeen konpromisoen bidez prebentzioaren erronkari aurre egitea ahalbideratzen dute.

Helburu orokorra: Herritarrek adikzioen arazoari buruz sentsibilizatzea eta informatzea, prebentzio ekintzen diseinuan eta plangintzan partaide eginez.

Helburu operatiboak:	Ekintzak
Kolektibo eta elkarteei beren programazioen barruan adikzioak prebenitzeko jarduerak ezartzeko behar dituzten tresnak eta lanabesak ematea	Prestakuntza elkarte, gizarte bitartekari eta kaleko hezitzaileentzat
Beste gizarte kolektibo batzuekin batera prebentzio izaerako ekintzak planeatzea, eta konpromisoak hartzea, aukerak bilatzea, et arrisku eta kalteak murriztea erraztea	Laguntza talde eta elkarteentzat gizarte esku hartzeko programak garatzeko. Aholkularitza elkarteei adikzioen eta haien berariazko prebentzioaren arloan.
Bizimodu egokia izateko eta bestelako aukera positiboak bilatzeko balio duten gizarte eta komunitate ekimenak sustatzea eta bultzatzea	Jai esparruetan adikzioak prebenitzeko eta arriskuak murrizteko ekintzak. Sailarteko eta diziplina anitzeko batzordeetan parte hartzea Udal kontseilu eta batzordeetan parte hartzea
Metodologia	
Arlo arazotsuen identifikazioa	Koordinazioa udalerrietako elkarteekin eta berezko liderrekin
Kausen diagnostikoa eta ekintzen formulazioa.	Ekintzak batera planifikatzea
Ekintza egiteko behar diren estrategiak antolatzea eta definitzea	Ebaluazioa eta amaierako memoria



Jarduerak

6.3.1.- Prebentzio Unibertsala



- **Alkoholik gabeko koktelen tailerrak**

Esku hartze honetan, parte hartzaileek alkoholik gabeko koktelen errezetak modu praktikoan ikasten dituzte, eta zeharreko moduan alkoholaren gehiegizko kontsumoei eta bere ondorioei buruz hitz egiten dute.

- **Gazte bitartekarietzako prestakuntza topaketak**

Haurrekin eta gazteekin zuzenean lan egiten duten pertsonen, aisialdian eta denbora librean gizarte bitartekari gisa jarduten dutenak, zuzendutako prestakuntza ekintza da hau.



Iraupena 1-4 saiokoa da. Lantzen diren gaiak garapen ebolutiboa, drogamendekotasunen prebentzioa eta gatazkak konpontzea dira. Haien bidez, prebentzioko agente aktibo jarduteko tresnak eta baliabideak eskuratzen dituzte.



- **Kerik gabeko astea**

Ekintzak "Maiatzaren 31 – Tabakorik gabeko Munduko Egun"eko nazioarteko ospakizunen barruan kokatzen dira.

Zabalkuntza jarduerak egiten dira (hitzaldiak, bideoak, informazio mahaiak etab), zenbait gizarte eragileren parte hartzearekin. Informaziozko

materiala banatzen da, erretzaileak tabakoa utzi beharraz sentsibilizatze eta tabakoaren kontsumoari lotutako arriskuen berri emateko.

6.3.2.- Prebentzio selektiboa

- **Nerabeentzako tailerrak**

Arrisku egoeran dauden 14 eta 18 urte arteko pertsonen zuzendutako prestakuntza monografikoa, batez ere kalamu eta alkohol kontsumitzaileentzat. Prestakuntza honetan ondoko gaiak hiltzen zaie:

- Mugen ezarpena.
- Arauen onarpena.
- Autokontrol emozionala.
- Emozioak modu positiboan adierazten ikastea.
- Autoestimua.
- Gatazkak konpontzea.
- Gizarte gaitasunen garapena.
- Asteburua erantzukizunez planifikatzea, etab.

2 orduko 1-6 saio egiten dira, gazte esparruetan, hala nola Gazteleketan, lonjetan, Gazte-guneetan, eta abarretan.

- **Boys and Girls programa**

Edex Fundazioak Europako beste bederatzi erakunderekin egindako ekimena da, bizitzarako trebetasunen eremuan oinarrituta. 13-19 urte arteko nerabeentzat dago pentsatuta.

Sare sozialak eta lineako edukia erabiltzen ditu eta bere ezaugarriak esker hezkuntza ingurune ez formalean aplikatu daitezke: gazte zentroak, lonjak, ingurune zabaleko hezkuntza programak, etab.



2D formatuan, zuri-beltzean egindako 3na minutuko 25 websailek osatzen dute programa.



- **PREBEN-JAIA: Alkoholdun edarien eta beste substantzia batzuen gehiegizko kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko informazio guneak.**

"Preben-Jaia" informazio guneak alkoholdun edarien eta beste substantzia batzuen kontsumoari buruzko informazio espazioak dira, kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko.



Eguneko (Mahats biltzearen azoka) eta gaueko esku hartze mota bi egiten dira herriko jaietan.

Informazio karpak jartzen dira, horretarako prestakuntza jaso duten begiraleekin. Karpa horietan alkoholemia kontrolak egiten dira, eta alkoholaren gehiegizko kontsumoaz, berari lotutako arriskuez eta zerikusia duten beste gai batzuek (alkohola/drogak eta alkohola/gidatzea binomioak) informazioa ematen zaio jendeari.



- **Prebentzio esku hartzeak gazte lonja eta lokaletan**



Arriskuak murrizteko prebentzio ekintzak egiten dira, gazteak topatzen diren guneetan, hala nola gazte lonja eta lokaletan.

Hauek dira lantzen diren gairik nabarmenenak: aisialdi espazioen erabilera osasuntsua, substantzien kontsumoari lotutako plazeren eta arriskuen kudeaketa, autoantolaketa eta ardurak hartzea lokalen kudeaketan, segurtasuna eta higiena, eta bizikidetzeta eta errespetua.

- **Banaketa arduratsuari buruzko prestakuntza ostalarientzat**

Helburua aisia seguru, osasungarri, arduratsu eta kalitatezkoa sustatzea eta lortzea da, ostalaritzako profesionalen eta enpresen parte hartzea eta inplikazioa lortuz. Estrategia ostalaritza eta aisialdiaren sektoreko enpresaburu eta langileen gizarte engaiamendua sustatzea da, establezimendu horien erabiltzaileen artean aisia jokabide osasungarriak bultzatzeko. Ezarpenaren bidez jarduteko protokoloak zabaltzen dira sektoreko enpresaburu eta langileen artean, eta instalazioak ikuskatzen dira, erosotasunari, segurtasun eta mantenuari eta ostalaritzaren eta zerbitzu publikoen, larrialdietako eta segurtasuneko zerbitzuen arteko koordinazioari dagokienez, balizko larrialdi egoerei erantzuteko gaitasuna hobetzeko.

Halaber, tabernei eta ostalaritza establezimenduei adikzioen arloan dagoen araudia eta establezimenduek araudi hori betetzeko duten betebeharra jakinarazten zaizkie.

Horretarako, inkestak egiten dira ostalaritzako profesionalekin eta prestakuntza saio bi, adingabeen alkohol kontsumoari buruzko araudiari, esparru itxietan tabakoa kontsumitzeari, eta abarri lotutako gaiak lantzeko. Erabiltzaileek alkohol gehiegi hartzeari lotutako gatazketako jarduerak, arriskuen murrizketa, etab. ere lantzen dira.

6.3.3.- Prebentzio adierazia

- **“Testing –Drogak” kanpaina: Alkoholaren eta substantzien kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko informazio guneak**



Gaueko esku hartzea da, gune bi dauzkana:

- Karpa orokorra, 3 begiralarekin. Hemen materialak eskaintzen dira, informazioa ematen da, zalantzak argitzen dira, eta drogen erabilerari buruzko informazio orokor eta pertsonalizatua eskaintzen da.
- Espazio itxi bat, normalean bulego ibiltari gisa egokitutako furgoneta batean. Hemen begirale bat edo bi egoten dira eta kontsumitzaileek ekarritako substantziak analizatzen eta testatzen dituzte.

Kontsumo horien balizko arriskuak jakinarazten dituzte eta osasunerako arriskutsu izan daitezkeen substantzia adulterazioen berri ematen dute.

- **Info-Drogak “Substantzien kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko informazio guneak” programa**

Haren helburua ereduak eskaintzea eta drogen kontsumoei lotutako plazer eta arriskuen kudeaketa zuzenari buruzko zalantzak argitzea da. Gaueko ordutegian egiten dira, gazte asko dauden jaiak ospatzen direnean.

Zenbait substantziei buruzko materiala eta informazioa dauzkan informazio mahai bat instalatzen da, kontsumoei lotutako galderei erantzuten dien profesional batek gidatuta.

- **Koordinazioa entitateekin**

Era osagarrian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak koordinazioa egiten du beste sistema eta politika publiko batzuekin, bereziki gizarte zerbitzuen, osasun eta hezkuntzaren sistemekin, toki erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez. Halaber, hirugarren sektoreko entitateekin koordinatzen da. Lankidetzeta hitzarmenak dauzka sinatuta haiekin landa eremuan programak garatzeko.



▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA
Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social
▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

7.

Ebaluazioa





Ebaluazioa plangintzaren fase zentral bat da. Plan honen esparruan egin beharreko esku hartzeak etengabe eguneratzen eta hobetzen laguntzen du.

Fase hau nahi ziren helburuak lortzeko maila baloratzeko prozesua dela esan daiteke. Edo, de Sara De Miguel Badesaren hitzetan ⁽¹⁾, “*ebaluazioa ezinbesteko diziplina metodologikoa da; esku hartzearen eraginkortasuna neurtu eta diseinu metodologikoan sartu behar diren aldaketak gidatzen ditu*”

Bi ebaluazio sistema nabarmendu daitezke:

Prozesuen ebaluazioa: Aurreikusitako ezarpen plana nola garatu eta gauzatu den azaltzen du. Honako alderdi hauek dauzka:

- Ekintzak gauzatzean jarraitutako prozedurek planifikatutakoarekin izandako fideltasun maila kalkulatzea, esku hartzean benetan gertatu denaren ideia argia izan ahal izateko.
- Programatutako prebentzioko esku hartze guztiak gertatu ziren egiaztatzea.
- Esku hartzeak nola gauzatu diren eta haien diseinuak emaitza onak eman zituen azaltzea (zer egin den, zein maiztasun eta intentsitatekin eta ezartzean erabaki edo aldaketa batzuk zergatik hartu ziren zehaztea).
- Esku hartzea norengana iritsi zen (parte hartu zutenen ezaugarriak¹ eta haien parte hartze maila) eta xede taldearengana iritsi den egiaztatzea.
- Esku hartzearen kalitatea baloratzea taldearen erreakzioetan eta jarretan oinarrituta (parte hartzaileen eta hura gauzatzeko ardura duen talde profesionalaren gogobetetzea, etab.).

Emaitzen ebaluazioa: haren helburua esku hartze baten ondorioak baloratzea da, hura aplikatu ondoren espero ziren helburuak lortu diren ezarritik. Honako alderdi hauek dauzka:

- Prozedura azaltzea emaitzak neurtzeko.
- Ebaluazioa praktikan nola egin den azaltzea.
- Emaitzei buruzko informazioa lortzeko erabilitako iturriak eta prozedurak identifikatzea.

⁽¹⁾ Miguel Badesa, S. - “Evaluación e Innovación en Animación Sociocultural. Animación e Intervención Sociocultural (283.-317. or).

- Esku hartzeak xede taldean izandako ondorioak azaltzea (bai adikzioei lotutako jokabideetan, bai bitarteko aldagai jakin batzuetan).
- Esku hartzeak xede taldeko kideen artean izan ditzakeen ondorioak aztertzea, zenbait aldagai kontuan hartuz, hala nola adina, sexua, etab.
- Eraitzen txostena egitea, hor ebaluazioak emandako ondorio nagusiak zehaztuz eta haiek beste ebaluazio batzuen emaitzei lotuz.

Prebentzioaren eremuan ebaluazio sistemak ezarri, garatu beharreko esku hartzei buruzko erabakiak ebidentzietan oinarrituta hartu ahal dira. Horregatik, ebaluazioak, prebentzioaren eremuan, helburu garrantzitsuak betetzen dituzte, besteak beste:

- a) Lehenago prebentzioko estrategiarik egokiena hautatzea esku hartu nahi den egoerari aurre egiteko.
- b) Prebentzio programen kalitatea eta diseinua hobetzea.
- c) Programaren aplikazioa erraztea, dagokion biztanleriari iristea ahalbideratuz, eta beharrezko jarduerak sartuz.
- d) Hasieran hautatutako prebentzio estrategiak funtzionatzen duen edo ez, eta ahal den modurik eraginkorrean funtzionatzen duen baloratzea.



Ebaluazio adierazle eta informazioa biltzeko tresna egokiak hautatzea funtsezkoa izango da lortutako emaitzak aztertzeko garaian. Erabiliko diren tresnek sentikorrak (balizko aldakuntzak hautemateko gai), fidagarriak eta baliogarriak izan eta ebaluatu nahi denari egokitutako edukiak eduki behar dituzte, esku hartzearen bidez eragin nahi den dimentsioei buruzko informazioa emanaz.

Ebaluazio prozesu hori gauzatzeko, Komunitate Prebentzioko Lantaldeek erregistro orri bat erabiltzen dute, esku hartzearen daturik esanguratsuenak biltzeko gai hauek:

- Egiten duen pertsona edo kolektiboa.
- Jasotako eskaera.
- Egindako ekintza edo emandako erantzuna (edukiak, metodologia, denbora,...).
- Doakien pertsonak (pertsona kopurua, sexua, adina).
- Jarduera egitean gertatu diren gorabeherak.
- Irakasleentzako prozesua baloratzeko eskala.
- Ikasleentzako programarekiko gogobetetze eskala.



- Gurasoekiko gogobetetze eskala.
- Esku hartzean aipatu beharreko bestelako gai interesgarriak.
- Etorkizunerako proposamenak.

Azkenik, esan behar da Adikzioei buruzko Foru Plan honen balorazio globala egin ahal izateko ez dela nahikoa haren ezarpenaren amaieran ebaluatzea. Aldian aldiko jarraipena egin beharko da, beharrezkoa balitz, bidean zuzentzeko neurriak hartu ahal izateko.

Gasteiz, 2017ko ekaina